

# Euskara eta gaztelania euskaldun zaharren ahotan. Zergatik eta noiz?

Orreaga Ibarra

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## **Laburpena**

*Euskaldun zaharren euskara-gaztelania code-switchingaren (CS) edo kode txandakatzearen funtzioak aztertzea da lan honen xedea. Honetarako, herri batzuetako hiztunen elkarrizketa eta narrazioetan oinarritu gara, eta CSaren funtzioak azertu ditugu. Bigarren helburua izan da ateratako emaitzak bertze ikasketa batzuekin parekatzea, zehazki gazteek egindako kode txandakatzearekin.*

## **0. Sarrera\***

Orain arte kode txandakatzea edo *code-switchinga* (CS, hemendik aurrera biak sinonimo gisa erabiliko ditugu) oso prozesu kritikatu izan da, euskaraz gaizki mintzo diren hiztunen adierazgarri, euskara txarraren seinale. Weinreichen (1953) arabera, hiztunek txandakatzen zuten hizkuntza batetik bertzera, gaiaren eta elkarrizketatuaren arabera, baina, egoera berdin mantentzen bazen, ez zen txandakatzerik izaten. Egun ikuspegi hau gainditua dago.

Ondorengo ikerketek erakutsi dute kode txandakatzea oso ohikoa dela (Gumperz & Hernández Chávez, 1972), zenbait hiztunendako araua eta ohiko jarduna izatera heldu da, ez da salbuespen bat. Denok dakigu, eta Romainek azpimarratzen du (1995: 294) kode txandakatzea, ospe txarra duen arren, ukipenean dauden hizkuntza guztietan agertzen dela, eta horretarako arrazoi bat da hiztunarentzat taldearen identitatearen adierazgarria dela. Poplacken (1980) hipotesiaren arabera kode txandakatzeak ez die men egiten ez hizkuntza, ez hiztun hutsunei: hizkuntza bietan hiztunek duten hizkuntza-gaitasunaren seinalea da.

---

\* Ibon Sarasola irakasle izan nuen Gasteizko Unibertsitate zahar hartan, hasierako urratsetan, Mitxelenarekin batera. Garai horietan, eta geroago ere, eredugarria izan da niretako haren jakinduria ezezik, Ibonek izan duen lanerako gogoa eta grina. Horregatik, ohore handia da omenaldi honetan parte hartzea. Honako artikulua hau MECeko FFI2012-33190 ikerketa proiektuaren babespean egin da.

Hainbat ikertzailek aztertu dute elkarrizketan sortzen den kode txandakatzea, J. Gumperzek (1982) eta Auerrek (1995), besteak beste. Hauek CSetik sortzen diren elkarrizketa funtzioak baztertzeko dituzte, ez dutelako erabat azaltzen fenomenoa. Ikertzaile hauek proposatzen dute CSa dela «kontestualizazio seinalea», elkarrizketaren testuinguruan sortzen diren hainbat funtzio azpimarratzen dituena, eta azken garai honetako ikerketetan indarra duen teoria hau da (Cf. Auer 2003). Edozein modutan, kode txandakatzea gertatzen den momentuan, hainbat faktore funtzional eta pragmatikok baldintzaturiko fenomeno baten aurrean gaude: testuingurua, partehartzaileak, elkarrizketaren gaia etab. (López Morales 1993: 173).

Hori dela eta, gure artikulu honen helburua da euskaldun zaharrek noiz egiten duten txandakatzea aztertzea, alde batetik. Bertzetik, kode txandakatzearen funtzio komunikatiboak identifikatzea 'eredu mota' edo 'txandakatzeko mota' hauetan. Bigarren helburua izanen da hemendik ateratako emaitzak parekatzea bertze ikasketa batzuekin, zehazki hiztun gazteek burututako txandaketekin. Honetarako, Appel & Muysken (1987), eta Myer-Scottonen (1993) ereduak segituko ditugu, CSaren eredu desberdinak bereizten saiatzen dena, motibazioa eta egoera soziolinguistikoaren arabera.

## 1. Metodologia

Lan honetarako, hamar euskaldun zaharri egindako elkarrizketatan oinarritu gara, bakoitza 20 minutu ingurukoa. Ikertutako hiztun guztiendako euskara da lehen hizkuntza, beraz, denek menperatzen dute ongi eta naturalki eta erabiltzen dute, denak euskaldun zaharrak baitira. Eguneroko jardunean, gehienetan euskaraz aritzen dira, baina, hala ere, batzuek ohitura handiagoa daukate euskaraz egunero mintzatzeko bertze batzuek baino. Zer esanik ez, denak dira elebidun osoak, hots, erabateko gaitasuna dute bi hizkuntzetan.

Solasaldiak giro lasaian eginak dira, hiztunen ezagun batek burutuak, gehienetan biloba edo seme-alaba batek. Elkarrizketak irekiak izan dira, baina gehienetan jorratu diren gaiak hauek izan dira: bizitzaren pasarteak, familia, kontakizunak eta herriko ohiturak. Hurrengo herri hauetako hiztunak elkarrizketatu dira: 1. Dorrau, 2. Arbizu, 3. Donamaria, 4. Usurbil, 5. Unanu, 6. Urdazubi, 7. Alkotz, 8. Orozko, 9. Elbetea eta 10. Irurita. Honatx datu gehiago: 50 urtetik gorako 5 gizon eta 5 emakume izan dira, euskaldun zaharrek, maila ekonomiko ertainekoak eta gehienak ikasketa maila handirik gabekoak. Datuak elkarrizketaren bidez lortu dira, baina, erran dezakegu, anitzetan bakarriketako sekuentziak ala narrazioak bihurtu direla. Hori dela eta, hiztuna, solasa luzean aritzen denean harturiko sekuentziak izan dira hauek. Kode txandakatzearen 160 burutzapen atera dira, baina, guk lan kualitatibo honetan, adibidetegi bat atera dugu, anitzetan txandakatzeko errepikatzen baitira.

## 2. Funtzioei buruzko azterketak

Funtzioei buruz egin diren azterketak ugariak dira. Gumperzek (1982) urtean, kode txandakatzearen funtzioak aztertu zituen: hizkuntz komunitate bateko hiztun elebidunek komunikaziorako hautatu dezaketen aukera bat da kode txandakatzea. Gumperzen ustez, CSa diskurtso mota bat da, edota hiztunaren komunikazio aukera bat. Hiztunak erregistro edo euskalki batzuen artean mugitzea aukera dezake, hizkuntza batetik bertzera aldatzea aukeratu dezakeen bezala.

Hiztun guztientzat, elebakar nahiz elebidunentzat, hizkuntza sistema batetik bertzera aldatzeak funtzio adierazkorra izango luke, eta beraz, funtzio pragmatikoa ere bai. Bertzaldetik, Blomek & Gumperzek (1972) bi motatako kode txandakatze proposatu zuten: kode txandakatze transakzionala eta metaforikoa. Lehenengoa, transakzionala, elkarrizketaren osagaien menpe egiten da, alegia, gaiaren, solaskideen eta abarren menpe. Bertzetik, kode txandakatze metaforikoa dago, hau ez da gaiaren inguruan sortzen, helburua da ondorio jakin bat lortzea, adibidez, bertze hiztun batzuen aipamenak adieraztea, interjekzioak eta hitz makuluak nabarmentzea, errandakoa errepikatzea, mezuak argitzea, bertzearen rolean sartzea etabar.

Geroago, Gumperzek (1982: 80-81) aztertu zuen CSak nola sortzen zirenen hurbilketa eta urruntasuna mezuarekiko. Poplacki jarraituz (1980), hiru motatakoa izan daiteke: perpausen barruko txandakatzea, perpausen artekoa eta makulu hitzena. Euskaraz ere txandakatze mota hauek agertzen dira, baina, oraingo lanean hau ez da kontuan hartuko.

Gure hizkuntzari hurbilduz, jakin badakigu euskaldun zaharrek kode txandakatzea egiten dutela, alegia, kode txandakatzea ohiko jardun ahozkoan gertatzen dela, bertze hizkuntza batzuetako hiztun elebidun askok egiten duten modu berean: ingelesez-gaztelaniaz, frantsesez-marokoeraz, malaysieraz-inglesez. (Alfonzetti 2003; Zentella 1990; Silva-Corvalán 1973; Bentahila 1983; Blas Arroyo 1993). Bertzaldetik, euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa txandakatzearen azterketak ugaritu dira azken urteotan (Lantto 2012; Muñoa 1997; Epelde & Oihartzabal 2010). Guk, gure aldetik, gazteon euskara-gaztelania kode txandakatzea aztertu dugu (Ibarra 2011 argitaratzean), baina oraingoan, ordea, euskaldun zahar helduen CSari buruz arituko gara.

Bukatzeko, maileguaren eta kode txandakatzearen arteko muga bereiztea zaila denez, hauex da guretzat irizpidea. Hitz bat integratua dago baldin eta deklinatua badago eta euskarako arau fonologikoetara egokitua badago, adibidez: *instruziyok*, *injenierua*, *automobilak*, *esposatu*, *kolejioan*, *karrerak*; kasu hauetan ez dugu CStzat hartuko. Baina, «bi hilabete *de prácticas*», edo «pasatu *la revisión*», bezalako adibideetan, kode txandakatzea izanen da.

### 3. Kode txandakatzek betetzen dituen funtzioak gure azterketan

Hurrengo lerrootan aztertuko dugu zein testuingurutan eta zein helbururekin egiten den kode txandakatzek hau. Honetarako, txandakatzek guztiak atalka sailkatu ditugu.

#### 3.1. Mezua mantendu, ireki eta itxi, modu laburrean eman

Kode txandakatzek maiz gertatzen da interjekzioetan eta bukaerako oharretan. Hitz hauek erraz mugitzen dira esaldian, errendimendu handikoak dira, sintaktikoki loturarik ez dutelako. Poplackek (1983) «etiketa» txandakatzek deitzen die. Gisa honetan sartzen dira lokuzio adberbialak, alegia, esaldi fijoak, eta hizkuntz adierazpideak, esamoldeak eta makulu hitzak: *o sea, por ejemplo...* Etiketa hauek elebidunaren forma sozialak dira, edozein tokitan ager daitezkeen elementuak, eta komunikazioa mantentzeko, hasteko, eta bukatzeko erabili ohi dira.

- (1) San Blasko bentatik behera ta baserri batzu ziren, bizpiru *o así*. (Alkotz)
- (2) Lehenago telebista zen *el no va más*. (Alkotz)
- (3) Panaderoa *por ejemplo* faten da bat zortziten. (Dorrau)
- (4) Ni oroitzen naiz irriten inñautika *por ejemplo*. (Irurita)
- (5) Egoten bazien ostatuen ele ta ele ta trago ta *lo que sea*, aspertute, beñere, beti gustora. (Irurita)
- (6) Denak euskeraz egiten giñuen, *en cambio* ni torpetu egin nez. (Arbizu)
- (7) Pues nik baditut *a ver* hogeitamaika urte Arbizutik atera nintzela. (Arbizu)
- (8) Zalduyék *o eso* (mandoa esan nahi du). (Arbizu)
- (9) Ez dut aztutzen, *además*, Victor, seme zarrena... (Arbizu)

Kasu honetan sartzen diren makulu hitzek txandakatzek erraza jasotzen dute. Hizkuntza lokuzioak ere hemen sartu ditugu. Esaterako, ingelesez arruntak dira hauek: (you know, I mean...) eta diskurtso markatzaileak ere posible da hemen sailkatzea (well, ok, all right). Hizkera batzuetan, Sakana-kon, adibidez, *lo pasa que* moduko markatzaileak agertzen dira, lexikalizatzeko bidean daudenak:

- (10) Guri eakusten eta guk ee tesak eitten ta dudak galdeska ta *pasa que* egun onak (Dorrau)
- (11) ...eta gu bezelexe beño *lo pasa que* rangueikin zegon. (Dorrau)

Gazteen artean ere usu gertatzen dira (Ibarra 2011: 288) txandakatzek hauek. Baina, aldea dago, gehienetan desberdinak izan ohi dira. Alegia, ez-

dira *lo pasa que, por ejemplo, además, o eso*, baizik eta *yo que sé, sin más, ya está, vale, no se qué*....alegia, gazte kutsua ematen dizkioten makulu hizak izaten dira.

### 3.2. Topikoen arabera txandakatzeak

Kode txandakatzea sortzen da mintzo den topikoen arabera. Alegia, gaia gaztelaniaz emanda dagoenean erreferentziak hizkuntza horretan egoten dira, adibidez, telebistako programen izena edota soldaduskako terminologia. Hitz bat hizkuntza batean kodifikatua dagoenean, horretan bertan islatzen da, ez da itzulpenik egiten. Horrela, gaztelaniarekin loturiko gaiak hizkuntza horretan ematen dira, beraz, hauxe da CS ohiko bat. Erreferentzia kulturalen kasuan maiz gertatzen da hori, funtzio erreferentziala betetzen baita. Horregatik, hiztun bat telebistako programei buruz ari denean edota, bertze bat ikasketetako tituluez ari denean, edo hirugarrena jantzi motei buruz ari denean, denek gaztelaniara jotzen dute.

- (12) Normalian ee ikusten zuen e *cabo primerak*, da jendia. (Dorrau)
- (13) Pues eitten zuten hori, orain nola erraten da...*turno partido* eta horrela. (Alkotz)
- (14) Lendabisko telebista, orduen kusten zen *telenorte*, gero torri zen UHF erraten ziotena, *la dos*, eta gero gero, gero pues torri ziren bertze *telecinco* ta *antena tres* ta bertze gainerako guzie (Alkotz).
- (15) Orai dela bortz urte zituen...*de apéndice*. (Alkotz)
- (16) Leno sosik gabe bizitzen ginen ta igual iten ginuen *abrigo* bat hamar urtetik behin, ta orai berriz, bestiduen zinuen, *abrigo de piel* ta gero *chaqueta piel* ta arropa beraikin, galtzerdiek hausten gintuen. (Urdazubi)
- (17) Ta azkena dut, Fermin, ta hoi *Ingeniero superior* ein zun. (Donamaria)

Adibidez, soldaduskako terminologia guztia gaztelaniaz agertzen da, eta horrek ziurtasuna ematen dio hiztunari. Gazteen solasaldietan funtzio hau ere agertzen da, baina, gaiak edo topikoak ezberdinak izan ohi dira (Ibarra 2011: 286). Bertzaldetik, hiztun gazte alfabetatuek ez dute horrelako beharrik ‘hiztegi tekniko’ hori itzultzeko edo:

- (18) Ta ordueskeo e nuen iñungo problemik ta geña julyuuen artu nuen ee *servicio de vacaciones* hogei eun. (Dorrau)
- (19) Da geo abuztuen e bei, un *puesto de trabajo*, zerviziyoa libretu in nintzen. (Dorrau)
- (20) Lanroberra ongi mantenittu, ta jinasik ein bai eun guzia hortan, *en el pelotón de servicio*, geo sartu zigun *tipo mantenimiento*. (Dorrau)

- (21) Zeati ya ostielero etortzen nintzen etxea, zeati *pelotón de servicio* giñen da egoten...*rebajau de servicios*. (Dorrau)
- (22) Giñazkan bi illebeta *de prácticas*, kamionakin. (Dorrau)
- (23) Ta geo or egondu giñen *de instrucciones*. (Dorrau)
- (24) Ta nik egondu nintzen, ee *en armas de apoyo*. (Dorrau)
- (25) Ta giñoin repartituta ya *por secciones*. (Dorrau)
- (26) Ez da ikusten e ez arbol, ez bistik, die *treinta o cuarenta kilómetros de largo, por cuarenta de ancho* ta ez dau ez ganadurik ez jenderik, ematen do dala *desierto Sara*. (Dorrau)
- (27) Hantxe ure zen *centro de recogida*, denak harat. (Irurita)
- (28) Abuztuen e bei, un *puesto de trabajo*, zerviziyoa libretu in nintzen. (Dorrau)
- (29) Joan Miguel ein tzun *ingeniero técnico* tai o sartu. (Donamaria)
- (30) Il gabe etortzen zienak hoyek bazeiken *agua corriente* jarriya. (Usurbil)
- (31) Batzuetan, beste gaztelaniazko sintagma deklinatua joan daiteke:
- (32) Galdu nuen *puesto de labadero*ko hure. (Elbeta)
- (33) Ta egin tzuten *karpinteri* berri bat *poligono industrialin* batian ta hor. (Donamaria)

### 3.3. Gardentasuna eta zehaztasuna bilatzen denean

Txandakatze mota honekin bilatzen dira zehaztasuna eta gardentasuna, eta maiz gertatzen da kale izenetan, instituzioen izenetan etab. Bertzaldek, kulturalki markatutako esaldietan ere ohikoa da hizkuntzaz aldatzea. Euskara-frantsesa txandaketetan arruntak dira. Epelde & Oihartzabalek 2009: 5), adibidez, hauxe bildu zuten: Iten zuten *à la rue Gambeta*, eta baita gazteen hizkeran ere (Ibarra 2010, 2013). Adib. Hori da *el puente de las Oblatas?*

Hauetako asko esaldi baten barruan sortzen dira eta, kasu honetan preposizioek, bereziki (*en, a...*) laguntzen dute sintagma hauek sartzen, denetan mezua argitu eta azpimarratzea dute xedea:

- (34) Orain bizitzen naiz *en la calle Tafalla*. (Usurbil)
- (35) Beak hartzen zuen *en el rio*. (Usurbil)
- (36) Ta lo ere han eiten zuela *en la roca*. (Usurbil)
- (37) Juten zian *a las monjicas*. (Usurbil)
- (38) Donostia...*en la Bretxa*. (Usurbil)
- (39) Ya gero billatu zan lekua ta *a Salesianos*. (Usurbil)
- (40) Eta segituan hasi zian, zu ere bai *en la calle San Fermín*. (Usurbil)
- (41) Eta ere bai *a chapas, a chapas*. (Alkotz)
- (42) Jetta izeten zan *el demonio*. (Unanu)

### 3.4. Bertzeen hitzak zuzenean errepikatzeke

Bertze pertsona batzuek errandakoa hitzez hitz aipatzeko jatorrizko hizkuntza erabiltzen da, kasu honetan, gaztelania. Gisa honetan, hiztuna errealtateari hurbiltzen zaio, bertze pertsona baten rolean sartzen baita, bizitasuna eta errealismoa emanez; horrela, egoera kontestualizatuak azpimarratzen dira. Gazteen artean ere usu agertzen da funtzio hau.

- (43) Hoixe eztakit ere, zure amak erran dik *unas seiscientas pesetas al mes*. (Irurita)
- (44) Ta orduan ba ez esan: *Oy! Que, qué moto más hermosa* ta eztakize ta bakize ta, beak *vamos a ...buelta bat emango izut* hartu gendun handikan. (Usurbil)
- (45) Ba! Agudu ure in behar du eta panaderuak erran tzun: *¿por qué dices eso?* (Donamaria)
- (46) Denai pasatu ta... *por orden del capitán que este señor pase en cinco minutos la revisión*. (Dorrau)
- (47) Ta orduen erran zidaken medikuek: *¿oye, porqué no te presentas?* (Elbetea)
- (48) Joaten nintzarian Erizaa *¡yo te daría, yo te daría!*, euskeraz hitzein gabe. (Usurbil)
- (49) Kanta batik esaten don bezela: *Calle alta, Calle baja da Calle de axkarrikalde*. (Dorrau)

### 3.5. Indar adierazkorra emateko

Adibide asko txandakatze metaforikoak dira, enfasia eta indar adierazkorra emateko egiten direnak. Txandakatze metaforikoak dira hauek, alegia, ideia soziokultural bera bertze hizkuntza batean ematen badugu, konnotazio desberdinak eranstean ditugu. Gehienak, esaldi barruan sortzen dira, batzuetan honekin umorea eta ironia pixka bat ematen zaio hizketari:

- (50) Lenago bizi ginen *tan feliz*. (Urdazubi)
- (51) Sos pixka aten esperoan noiz hartuko zinuen sosa ta *tan feliz*. (Urdazubi)

Batzuetan *-menterekin* bukatuta dauden adizlagunak hartzen dira, eta hori hizkera guztietan gertatzen da. Izan ere, badirudi hitz luzeak errateak indarra edo dotoretasuna ematen diola hizketari. Ikus dezagun, esaterako, erdaraz hitz luzeak esateko dagoen joera:<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Egungo ahozko gaztelaniaz hitz luzeak erabiltzeko joera nabarmendu da, artikulua honetan ageri denez honakoak ugaltzen hasiak dira: *desfasamiento, colaborativo, particularizado, visionar, potencialización, narrativizar*. El País, domingo 16 de marzo.

- (52) *Mayormente* esnea salduten dau. Geo gora joaten dire ardik frontonara an iten desu *mayormente* esnea. (Orozko)
- (53) Ta badakizu baginakigun gu *perfectamente* biar ginuela yeiki. (Iru-rita)

Gainerakoak mota guztietako sintagmak dira, adjektibo sintagmak, adberbio sintagmak eta abar:

- (54) Pero ni nitzan neska *más rebelde*. (Usurbil)
- (55) Azkenian ia *pues a puro presión* eñez pues ia maten zuten finala. (Alkotz)
- (56) Ez zunak aprobatzen ba zkan hogitamar eguneko arrestoa eta hoi zan *muy grave*. (Dorrau)
- (57) Ta bueno ba ari betzuk etxia ta bestiek *por el mundo*. (Dorrau)
- (58) Ta... *bueno, menuda* ze lanak! goreino itzaltzen joaten ginen. (Arbizu)
- (59) Enrike hasi omen huen harrapatzen eta *¡qué va! media vuelta* hartu omen ziñen. (Unanu)
- (60) Ta orduen... denak juan behar ginuela *a la mierda*. (Elbetea)

Batzuetan, gertatzen da hiztunak ez duela horrelako hitzik aurkitzen indarra markatzeko, eta horregatik, bertze hizkuntzara egiten du jauzi. Hiztun elebidunak aukera baitauka bi hizkuntzen artean mugitzeko. Muñoak ere gauza bera ikusten du Gipuzkoako hiztunengan (1997).

- (61) ...eta etortzen zen malda beitti *echando puñetas*. (Alkotz)
- (62) Patu zitunen lau pantalon zahar, bisera bat, baakin nolakua den eta *a cara descubierta* hantxe. (Iru-rita)

Forma hauek (*radical, quieto, sin remedio...*), forma motzak dira, hitz bakar edo bikoak, indar handia dutenak eta esaldiaren bukaeran tinkotasuna adierazten dutenak:

- (63) Bai, txapelien ekartzen zittun sagubek eta bakizu ze ein zakiyon, ilara guzia bota *radical*. (Unanu)
- (64) Armaiorrek barna sartzeko tartiek zozkin ba, eta esan non, hemen *enbalde* dok. (Unanu)
- (65) Harrutza fan ber ziñen *sin remedio*. (Unanu)

### 3.6. Idiolektoaren arabera txandakatzea

Aitortu behar da idiolektoaren arabera aldeak daudela eta kode txandakatzea maizago gerta daitekeela hiztunen arabera; norberak hitz egiteko es-



tilo berezkoa baitauka. Gure azterketan CS adibide ugari dago hiztun heldu batek (Usurbilgo emakume batek) pentsatzen duelako bertzeak, elkarriketaz-zaileak, ez diola ongi ulertzen euskaraz, eta horregatik, erdarara jotzeko ohi-tura du.

Kasu ugari atera dira, hauetan badugu esaldi bat euskaraz eta gero, bator bertze bat gaztelaniaz. Aguretxo hau Iruñean bizi denez, ohitura hori areagotu zaio, elkarriketatzailerak aurkitzeko parada handirik ez duelako. Gisa honetan, euskara/gaztelania txandakatzea dago bi esaldi jarraituetan, batean euskaraz eta bertzean erdaraz, esaldi koordinatuak batzuk, bertzeak aurkaritzakoak:

- (66) Ta ama Donamariakoa: *espera, que más te voy a decir yo...* lau anai arreba giñen... ni gaztena y *qué más te voy a decir, espera...* (Donamaria)
- (67) Kanpokogas hasten sara erdiera berbas y *te sale con una facilidad el castellano que pa qué.* (Orozko)
- (68) ...etorri etorri txikia, etorri! y *la otra no le entendía.* (Usurbil)
- (69) Pentsuak ganadauentzako eta remolatxa... *bien cuidado soliamos tener el ganado.* (Usurbil)
- (70) Ta gero kamionetan ekartzen zuen, orain *ya hay mejor preparados, claro.* (Usurbil)
- (71) Ta hara jun behar det, *pero pidieron y no había sitio.* (Usurbil)
- (72) Tranbia... *ya se ha terminado el tranvía.* (Usurbil)
- (73) Eta bestea segittuan han zeuden... *y daba clases.* (Usurbil)
- (74) Nik enekiyen erdera, *tuve que aprender yo.* (Usurbil)
- (75) Hartzten zuen iketza eta sua iteko... *y manchaba también.* (Usurbil)

### 3.7. Hitza ez denean ezagutzen

Jakina denez, euskaldun helduen artean oso ohikoa da zenbakiak eta hila-beteen izenak gaztelaniaz ematea. Hiztun hauek ez dira eskolatuak izan euskaraz eta, honenbertzez, hiztegi eskasiarengatik erdarara jotzeko joera nabarmentzen da. Gazteengan ere agertzen da CS hau, baina, itemak ezberdinak izan ohi dira, alegia, zenbakiak eta hilabeteak ez dira izaten.

- (76) Hiltzen hituen bai *diciembre* hasten zen *hasta febrero* marzuraino zengatik kontserbatzen zen ordubean. (Arbizu)
- (77) Mila esker *entrevista* egiteagatik.
- (78) Illea eta gero garbitu urakin *manguera* pasatzen giñun. (Donamaria)
- (79) atsaldeko seiyeek o zazpiyek aldean, eta berran nazkan bi *trabordo.* (Dorrau)
- (80) Normalian ee akusten zuen e *cabo primerak*, da jendia. (Dorrau)

### 3.8. *Birformulazioa egiteko*

Gauza bat bertze modu batez errateko, berriz formulatzen da bertze modu batean, antzera emanez edo zehaztasunen bat erantsiz edo bertze hizkuntzan emanez. Alegia, lehenengo euskaraz erraten da, eta gero, gaztelaniaz edo alderantziz errepikatzen da. Hiztunaren helbura izaten da informazioa argitzea, argudioa azpimarratzea edota zehaztasunen bat ematea.

- (81) Dice el Ángel, Miguel, y el otro ni caso, ezta kasorik ere, muy rebelde. (Usurbil)
- (82) Altxatzen zuen ta *pan! ruidos*, burrunba haundik. (Usurbil)
- (83) Azkenin semiekin *karpinterian*, zurtegian; *karpinterian* hasi nintzen. (Donamaria)

Eta bertze batzuetan hizkuntza txandakatuz eransten zaio ñabardura bat, parentesi moduko zerbait egiten da, informazio gehiago emateko, bi hizkuntze-kin jolasteko modua da hau. Hain zuzen ere, Usurbilgo emakumearen solasaldiak dira gehienak. Emakume honek joera nabarmena dauka erdarara jotzeko, Iruñean bizi baita, eta behar bada pentsatzen du bere aurrean daukanak ez dakiela euskaraz hain ongi. Horregatik, errepikapen kutsua hartzen zaio honi:

- (84) Gu lau, bi mutil da bi neska, Loren, Adoración, *Dora le llamamos*. (Usurbil)
- (85) Anaia eiten zun, Miel y Jose Luis, *era el marido de la Josepa*. (Usurbil)
- (86) Ta gero...*el haber del soldau*, ziren hemezortzi duro, *unas ochenta pesetas*. (Elbetea)
- (87) Ta zer pasatze da eman diola atake, *se ha muerto*. (Usurbil)
- (88) Bizi naizela como ...nauten bezala, *estoy muy bien*. (Urdazubi)

## 4. Ondorioak

Bistan denez, euskaldun zaharren kode txandakatzea ohikoa eta arrunta da eta eguneroko jardunean sortzen da. Honainokoa ikusita, funtzio batzuk betetzen ditu: indar adierazkorra ematea, gaiari zehaztasuna ematea, eta itzulpen arazoak saihestea. Honezaz gian, erabiltzen da hizketari ñabardura emateko, bertze pertsona batzuek errandako hitzak ekartzeko, hutsune bat betetzeko hitza falta denean, idiolektoaren arabera, birformulazioa egiteko etab. Aztertutakoaren arabera, txandakatze hau eta gazte urbanoen hizkeran sortzen dena nahiko antzekoak dira. Alegia, gazteen kasuetan ere sortzen da CSa esaldiaren barruan, esaldien artean eta lokuzioetan, eta antzeko funtzioak betetzen ditu, guk egindako bertze ikerketekin alderatuz, bereziki, Ibarrarekin (2011).

Erran bezala, gazteen solasaldietan sortzen den kode txandakatzeak funtzio antzekoak betetzen dituen arren, ez da berdina izaten eduki aldetik. Adibidez, esamoldeetan eta makulu hitzetan, hala nola hiztegi falta dagoenean, ezberdinak izan ohi dira batzuek eta bertzeek erabiltzen dituzten hitzak eta baita hiztegiaren itzulpen beharrak ere.

Honezaz gain, desberdintasun batzuk ikusi ditugu. Lehenik, a) ikerketa honetan ez dugu gazteetan dagoen biraoen txandakatzerik aurkitu. Txandakatze hau, ordea, maiz agertzen da gazteetan eta baita helduetan ere, Lantoren arabera (2012), emozioekin lotura zuzena daukalako; baina, guk ikerketa honetan ez dugu gisa honetako CSik aurkitu. Bertzaldetik, euskaldun zahar hauetan ez dago b) menpeko bi esaldien arteko txandakatzerik, adibidez, hiriko gazteetan gertatzen den bezala: -joaten banaiz...*la voy a liar* (Ibarra 2014) baldintzazko esaldietan, ezta menpekoen artean ere, edota hautazkoetan ere.

Eta azkenik, c), ez dago norberaren pentsamendua adierazteko CSik, alegia, gazteek beren pentsamenduak adierazteko erabiltzen dutena (Ibarra 2014). Gazteetan CSa da hitz egiteko modu ez markatua, berritasuna eta kreatibitatea dakarrena eta, ñabardura eta hizkera berria sortzeko gogoia adierazten duena, eta funtzio bat baino gehiago ekartzen duena.

Euskaldun zahar hauetan kode txandakatzea ohikoa da eta asmo komunikatibo zehatzak azpimarratzen ditu, besteak beste arestian aipaturiko hauek. Bukatzeko, hiztunak egiten duen txandakatzea ez da beti komunikazioa gabeziak betetzeko, baizik eta bi hizkuntzetan erakusten du gaitasun handia, behar ez den tokietan ez egiteko txandakatzea eta esaldi ezgramatikalak ez sortzeko.

## Aipamenak

- Alfonzetti, Giovanna. 2003. «The conversational dimension in code-switching between Italian and dialect and dialect in Sicily». In Auer (arg.), *Code-Switching in conversation. Language, interaction and identity*. London and New York: Routledge.
- Appel René & Peter Muysken. 1986. *Bilingüismo y contacto de lenguas*. Bartzelona: Ariel Lingüística.
- Bentahila, Abdelâli. 1983. «Motivations for code-switching among Arabic-French bilinguals in Morocco». *Language and Communication* 3, 233-243.
- Blas Arroyo, José Luis. 1993. «Perspectiva sociofuncional del cambio de código. Estado de la cuestión y aplicaciones a diversos casos del bilingüismo peninsular», *Contextos* XI, 21-22, Universidad de León. 221-263.
- Blom, Jan-Petter & John Gumperz. 1972. «Social meaning in linguistic structures: Code switching in northern Norway». In J.J. Gumperz & D. Hymes (arg.), *Directions in Sociolinguistics*. New York: Holt, Rinehart, and Winston.
- Epelde, Irantzu & Beñat Oihartzabal. 2009. «Code Switching en las variedades orientales del vasco». *eskuizkribua*, CNRS IKER-UMR 5478, Basque Text and Language Study Center, Baiona. [artxiker.ccsd.cnrs.f]

- Gumperz, John & E. Hernández Chávez. 1972. «Bilingualism, bidialectalism and classroom interaction». In J. Gumperz (arg.), *Language in social groups*. Stanford: Stanford University Press. 311-339.
- Gumperz, John. 1982. *Discourse Strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ibarra, Orreaga. 2010. «Alternancia lingüística en el euskera coloquial de los jóvenes vasco parlantes navarros: algunas razones para su uso». In García Manuel et al (arg.), *Interaxió comunicativa i ensenyment de llengües*. GIEL (Grupo de Interacción y enseñanza de Lenguas), València: Universitat de València. 249-256.
- Ibarra, Orreaga. 2011. «Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código». *Oihenart* 26, 279-300.
- Ibarra, Orreaga. 2013. «El code switching vasco-castellano en oraciones atributivas de hablantes jóvenes». *Oihenart* 28, 115-130.
- Ibarra, Orreaga. (argitaratzeaz). «Tipología y pragmática del Code Switching vasco-castellano en el habla informal de jóvenes bilingües». *Lapurdum*.
- Lantto, Hanna. 2012. «Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao». *International Journal of bilingualism*, August 31. [<http://ijb.sagepub.com/>]
- López Morales, Humberto. 1989/1993. *Sociolingüística*. Gredos.
- Muñoz, Inma. 1997. «Pragmatic functions of code-switching among basque-spanish bilinguals». *Actas Do I Simposio Internacional sobre o bilingüismo*. Universidad de Vigo. 528-541.
- Poplack, Shana. 1980. «Sometimes I'll start a sentence in spanish y término en español: towards a typology of code-switching». *Linguistics* 18 (778), 581-618.
- Romaine, Susanne. 1995. *Bilingualism*. Oxford, UK: Blackwell.
- Silva-Corvalán, Carmen. 1973. «Code-Shifting Patterns in Chicano Spanish». In L. Elias-Olivares (arg.), *Spanish in the U.S. setting*. Arlington, Va.: National Clearingtown house for Bilingualism. 69-87.
- Weinreich, Uriel. 1953. *Languages in contact*. New York: Linguistic Circle of New York.
- Zentella, Ana Celia. 1990. «Integrating Qualitative and Quantitative Methods in the Study of Bilingual Code Switching». *Annals of the New York Academy of Sciences, The Uses of Linguistics*. vol. 583, issue 3. 75-92.